



Ikuskizun bikaina eskaini zuten larunbat arratsaldean Markeliñe konpainiako aktoreek.

Markeliñeren magia

Profesionaltasuna eta irudimena gainezka, larunbat arratsaldean, haurrentzako antzerki emanaldian

Markeliñe taldearen Uharte ezezaguna lanaz gozatzeko aukera izan zuten larunbat arratsaldean Kultur Etxera joan ziren haur eta helduek. Markeliñe taldeko aktoreek euren profesionaltasuna erakutsi zuten ordubete iraun zuen ikuskizunean. Hiru aktoreek denarik egin zuten eta ikusleak oso gustura atera ziren emankizunetik. Akrobazien zatia izan zen ikusgarrienetarikoa. •

Ipuinak eta algarak Kike Biguriren esku

Kultur etxeko kafetegira ostirala arratsaldean hurbildu ziren gaztetxo, zein helduek Kike Biguri aktorearen umoreaz gozatzeko aukera izan zuten Gazteria sailak eta Xpression elkarteak antolatutako ekimenean. Eskarmentu handiko aktore hau ezaguna da zinean, telesailetan edo antzerkian lan egin duelako, baina bakarriketetan aditua dugu eta ostiralean hori frogatzera etorri zen herrira. Ipuin klasikoak gai hartuta horietako batzuen azterketa kritiko eta umoretsua egin zuen ikusleentzako algarak sortuz. •



Haur ugari lasterka Euskal Krosean

Giro bikaina izan zen atzo Eneko Kastoren omenez Landaberri ikastolak antolatzen duen Euskal Krosean. Atleta zenaren sendiak ikastolari esker ona adierazi zion oroigarri baten bidez. Proban 240 haur inguruk parte hartu zuten. /6

ALBISTEA /3

Babestutako etxebizitzak eskatzeko epea zabalik

ERREPORTAJEA /4-5

Maite Larrañaga artzaiak Eliza Ebanjelikoaren berri eman digu

Hurrengo
TXINTXARRI
martxoaren
22an
kaleratuko da

SUGATE
SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net



IREKI BERRIA



Farmabrit
Parafarmazia

Farmabrit
Parafarmazia

- Zure ongizaterako beharrezko guztia
- Zure haurtxoa zaintzeko behar duzun guztia
- ...

NUTRIZIONISTA ZERBITZUA ERE BADAGO!!



Nagusia 44 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 245358

Kontzertu paregabea Robert Expert kontratenoreak eskainitakoa

Gurasoentzako hezkuntza tailerraren bigarren saioa egingo da ostegunean

TINTXARRI

Kalitate handiko kontzertua entzuteko aukera izan zuten ostiralean Danok Kide elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz, antolatutako V. Musika Topaketan ekitaldira hurbildu ziren herritarrek.

Robert Expert kontratenore frantsesak ahotsarekin duen trebezia eta teknika erakutsi zuen, bakarka, Alberto Saez Puente pianojoleak lagunduta edo Ainhoa Merzero sopranoarekin batera.

Kontzertua

Kontzertuan, Expert eta Merzero konposagile handien operetako abestiak, abesti sakroak eta Frantziako abesti herrikoiak entzun ahal izan ziren kontratenorearen ahotsean, hala nola, Haendelen *Theodora* edo *Rodelinda* operetako pasarteak edo J.S. Bachen *Pasion según San Juanekoak*.

Herritarrek txalo zaparrada handia eskaini zioten kontzertu amaieran abeslari frantses eta haren laguntzaileei.

Kontzertu paregabe eta ahaztezina benetan Brigitarren komentukoa.



Konposagile handien abestiak entzun ziren Robert Expert kontratenorearen eta Ainhoa Merzero sopranoaren ahotsetan.

Gurasoentzako tailerrak

Danok Kide elkarteak Andatzapiti unitate pastoralaren laguntzaz antolatu dituen gurasoentzako hezkuntza tailerraren bigarren saioa ostegunean, martxoaren 18an izango du leku Danok Kideko egoitzan, Blas de Lezo 11-13 zenbakian.

Tailer hauek Secun Gonzalez Orive pedagogo eta sexologoak zuzendutako dira. Eskarmentu handiko irakaslea da eta gizarte gaiak zein gai moralak landu ditu.

"Tailerraren helburua norbera hezte da beste norbait hezi ahal izateko," azaldu dute antolatzaileek. Hortik

dator tailerraren izenburua *Hezi gaitzean hezi ahal izateko*.

Saioak hilabetero

Bilerak hilabete behin egingo dira, hilabete hiru egunen ostegunean, hain zuzen ere, eta hamabi sesio dira.

Lehenengo bilera otsailan egingo zen eta, antolatzaileek

aipatu zuten, saio horretan programaren eta lan egiteko modua azaldu zitzaizkien hurbildu zirenei.

Gaiak

Hilabete honetatik aurrera saioak hainbat gai buruzko hausnarketa gune bihurtuko dira, hala nola, sentimenduak, intimitatea, jarrera positiboa edo sexualitatea.

Era honetara, bikote kideen arteko harreman kalitatea eta elkarbizitzarako jarrera hobea izatea espero da.

Gurasoei gonbitea egin

Antolatzaileek adierazi dutenez, lehenengo saioan parte hartzaile kopurua ez zen bete.

Horregatik gonbitea egiten diete bikote harremanak sendotu eta haurren, zein nerabeen hezkuntzan interesatutako dauden gurasoei. Tailerra doan dela ere jakinarazten dute.

Beraz, bikote interesatuek ostegunean Danok Kideren egoitzara hurbildu daitezke.

Hala ere, antolatzaileek adierazi dutenez, "943 371 616 zenbakira deitu behar dute lehenik bikoteek izena emateko." •

Haurren hezkuntzari buruzko hitzaldi sorta guraso eta hezitzaileentzat

Seme-alaben hezkuntza eta haien hazkuntza fisikoa, nahiz emozionala dira gurasoen lehentasunetako bat.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitate, Kontsumoko, Merkataritzako eta Ingurumeneko Departamentuak aurreko urteetan bezala, 7 urte arteko haurren gurasoei eta hezitzaileei zuzenduriko urte osoko hitzaldi zikloa antolatu du.

Ohi bezala, hitzaldiak psikologia eta hezkuntza adituek eskainiko dituzte hala nola, Helena San Pedro psikologoa. Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan izango dute leku eta, orduari dagokionez, arratsaldeko 18:00etan izango dira.

Hitzaldiak

Era honetara, asteazkenean hilaren 17an izango da lehenengo hitzaldia *Nola aurre hartu gure seme-alabekin*



Haurrak nola hezi ikasteko hitzaldi sorta bat antolatu du Udalak urte osorako.

etorkizunean izan ditzakegun arazoei; apirilaren 20ean *Erautsi behar al zaie seme-alabei konpartitzen?*; maiatzaren 6an, *Gatazka bat sortu da, eta helduok zer egiten dugu?* gaia jorratuko da eta ekainaren 8an *Zigortzea beharrezkoa al da hezteko?*

Udako oporren ostean,

irailaren 14an, *Eskola/familia interakzioa* gaia izango da hizpide; urriaren 7an, *Hitz egin dezagun galeraz eta doluaz haurrekin ere;* azaroaren 16an, *Garapen psikoafektiboa. Haurren emozioa eta pentsamendua* izango da eta abenduaren 14an, *Haur tira-noak* gaia jorratuko dute. •

Michelinen amiantoarekiko politika salatu du LABek

Michelin Lasarteko LABeko sail sindikalak, enpresako zuzendaritzak amiantoarekiko duen jarrera salatu du ohar baten bitartez.

"Duela bi urte Gasteiz eta estatu frantseseko lantokietan amiantotik eratorritako gaixotasun kasuak agertu ziren. Lasarteko enpresa zuzendaritzari amiantoaren egoeraren berri ematea eskatu genion. Amiantoarekin kontaktua eduki lezakeen lanposturik ez dela egon, izan zen enpresa zuzendaritzaren erantzuna," adierazi du sail sindikalak.

Jarrera aldatuta eta zerrenda

LABek dionez, Enpresa zuzendaritza, azaldutako ziurtagarrien eta Lasarten Osalane aintzat hartutako kasua direla medio, hasierako jarrera aldatzera behartua ikusi zen enpresan.

"Material honen existentzia onartu, honen lokalizazio mapa

bat eta amiantoarekin kontaktua eduki lezakeen lanpostuen zerrenda bat egin zuen. Zerrenda hau guretzat gutzit eskasa da enpresan dagoen amianto kontutan hartuta," salatzen du.

LABek eginiko hainbat eskaeren eta ziurtagarrien ondorioz, enpresa zuzendaritzak amiantoarekin kontaktua eduki lezakeen lanpostuen zerrenda handitu zuen, baina hau LABentzat gutxiagizkoa izaten jarraitzen duela azpimarratzen da oharrean.

Enpresak, amiantoarekin kontaktua eduki ahal izan duten jubilatutako langileekin hitzaldi informatiboak egiten ari dela adierazten du. Baina "prebentzio delegatuei, hitzaldi hauetara joateko aukera ukatu zaie enpresa zuzendaritzatik," salatzen du sail sindikalak.

Hau gutzia dela eta, Michelin Lasarteko LAB sail sindikalak, enpresak aurrera daraman ukazio eta estalketa politika salatzen du. •

Etxebizitza Babestuen eskatzaileen zerrenda gaur ireki da

Goiegi Ibarreko hirurogehitza sei etxebizitzaren zozketa izango da lehenengoa

Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa martxan jarriko da gaurtik aurrera. "Orain da izena emateko garaia. Orain arte, ez zegoen erregistrorik eta hau izango dugu kontuan" azaldu zuen Jesus Zaballos alkateak ostiralean eskainitako prentsaurrekoan.

Etorkizunean udal promozioetan etxebizitza babestua eskatzen duen lasarteoriatarren eskariak jasotzeko balio duen tresna izango da, bai alokairuen kasuan, eta baita urte batzuetarako erabilera eskubideen kasuan ere.

"Erregistroak herrian dagoen eskaria zehaztu eta promozioetako baldintzak ezartzen lagunduko digu," adierazi zuen alkateak.

Lehen Promozioa

"Erregistroa ez da inoiz itxiko, baina epeak jarriko ditugu promozio bakoitzean, honela, lehenengo hilabete honetan izena ematen dutenek Goiegi Ibarreko etxebizitzaren zozketan parte hartzeko aukera izango dute," adierazi zuen Zaballosek.

Herritarren etxebizitza eskaeri aurre egiteko Goiegiko Ibarren 76 etxebizitza egingo ditu Udalak eta beste 100 Loidi-Barrenen.

"Loidi-Barreneko etxebizitzaren zozketa udara baino lehen egiteko asmoa dugu" aurreratu zuen alkateak eta "horretarako beste epe bat jarriko dugu."

Eskubidea edo alokairua

Jesus Zaballos alkateak azaldu zuenez, "Udalak egingo dituen etxebizitzak 75 urteko lurrazaleko eskubidea izango dute, (75 urtetarako emango dira). Etxebizitzaren beharra asetzeko egingo ditugu etxe hauek, ez etxebizitzekin negozioa egiteko."

Honela, etxebizitza saldu edo alokatu nahi baldin bada Udalarekin hitz egin beharko litzateke, zerrendatan dauden pertsonekin harremanetan jarzeteke.

Era berean, etorkizunean alokairuko etxebizitzak ere egingo direla azaldu zuen. "Zabaleta-Berriko eremuan negoziozietan gaude zuzkidura-alojamenduetako eremu bat lortzeko eta Kotxerasesko proiektuan ere beste eremu bat egingo da," aipatu zuen.

Hala ere, aurrerantzean herrian promotore ezberdinekin egingo dituzten proiektuetako etxebizitza kopuru bat Udalarantz izango dela aurreratu zuen eta horiek ere alokairuan jarriko dituztela.



Jesus Mari Zaballos alkatea ostiraleko prentsaurrekoan.

Gazteak eta herritarrak

"Azken urteetan zaila izan da etxebizitza eskuratzea, bereziki gurasoen etxetik joan nahi duten gazteentzat. Horregatik, onartzeko dagoen Goiegi Ibarreko proposamenean, etxebizitzaren %50a 35 urte azpiko gazteentzat izango dira" adierazi zuen alkateak. Gainera, legeak dioen bezala ehuneko bat egongo da pertsona ezinduentzat eta beste ehuneko bat familia ugariarentzat.

Bestalde, Etxebiderekina hizketan ari direla aipatu du

alkateak, "Eusko Jaurlaritzak eremu horretan egin behar dituen 75 etxebizitzaren ehuneko bat herrikoentzat izatea nahiko genuke eta."

Baldintzak

Baldintzei dagokienez Erregistroaren araudian aurki daitezke eta Lasarte-Orian 5 urte baino gehiago erroldatua egotea da horietako bat.

"Baldintza ekonomikoak, berriz, Etxebidek kontuan hartzen dituenak dira" azaldu zuen Zaballosek eta jendea

animatu zuen bulegotik pasa eta bere egoera azaltzeko "salbuespenak baitaude."

Izena ematea

Izena emateko lekua Lasarte-Oriako Udaleko 4. solairuan sortu den bulegoa da eta ordutegia astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:30era.

Bertan jasoko dituzte izena emateko baldintzak eta bete beharreko orria. "Orrialdean zein etxebizitza mota nahi duzun, zenbat pertsona biziko diren, etb. azaldu beharko dira" aipatu zuen alkateak.

Hala ere, "pertsonak bana-ka edo bikoteek eman dezakete izena. Herritarrak bikoteen erregistroa egitera animatzen ditugu zozketan zenbaki gehiago izango baitituzte horrela" azpimarratu zuen.

Izena ematen duten herritarrek promozio guztietarako aukera izango dute eskabidean adierazitakoaren arabera eta, beti ere, ezarritako baldintzak eta promozio bakoitzeko espezifikokoak betetzen badira.

"Dokumentazio guztietarako eskaera zozketaren ostean egingo da, behin behineko hautatuak direnean," adierazi zuen Zaballosek.

Udalaren www.lasarte-oria.org web orrialdean informazio guztia eskaintzen da. •

Ehun lagun Buruntz-Azpiko Calçotadan

Buruntz-azpi elkartearen aurreko asteburuan egin zuten Calçotadan ehun lagun elkartu ziren, 70 heldu eta 30 haur. Calçot edo tipulinak eta arkumea jan zituzten brasan erretea hilaren 6an larunbatean egin zen bazkaria honetan.

Gironako Porqueres herritik etorritako Josep eta Maria bikoteak ekarri zituen gero Buruntzazpi kanpoan erre zituzten Calçotak. Katalunian ohikoa da garai honetan calçotada deitzen duten festa egitea. Lasarte-Oriara bigarren urtez jarraian etorri dira eta laster tradizio bihurtuko da, hurrengo urterako ere hitzordua jarri baitzuten.

Oporretan ezagutu zituzten lasarteoriatar batzuek kataluniarrek eta hortik sortu zen festa egiteko aukera. 800 inguru calçot ekarri eta erre zituzten Basaundi auzoko



Kataluniatik ekarritako tipulinak erre eta jan zituzten.

elkartearen. Erretako azala kendu, saltsa batean busti eta eskuakin jaten dira calçotak.

Bazkalostean asko luzatu zen, giro bikaina izan baitzen,

trikitixa eta txalaparta doinu eta umore onarekin. Aipagarria da umeentzat haurtzaindegi zerbitzua ere izan zela Ttaku-neko ludotekaren eskutik. •

UDALA

Obrak eta Hirigintza saila Ganbo kalean

Udalak gogorarazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrera tokialdatu direla, behin-behinean, hari eta "Udaletxea eraberritzeko eta handitzeko" obrak amaitzen diren arte. •

ATERPEA

Loteriako saria Iturbe Zapaterian

Lasarte-Oriako merkatari elkarteak, Aterpeak jakin arazten du, elkarteko Loteria erosi zutenek irabazitakoa kobratu ahalko dutela martxoaren 22ra arte Iturbe Zapaterian, beti ere, denda-oren ordutegian. •

PARTEHARTZEA

Kudeatzeko lehen bilera burutu zen

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeatuz programaren baitan Lasarte-Oriako Udalak duen Plazaolako landa-parkearen parte-hartze prozesuari hasiera eman zitzaion ostegunean Manuel Lekuona kultur etxean.

Saioa honetan bi taldeetan, bata euskaraz eta bestea gaztelez, proiektuari buruz herritarrek dituzten beldurrak, zalantzak eta proposamenak entzun ahal izan ziren.

Hurrengo bilerarako eskaerak ere egin ziren besteak beste, Udaleko ordezkariaren bat egotea edo eremuko landa eta fauna zein den jakitea horiek babesteko. •

“Jesussek dena eman du guregatik, beraz guztia zor diogu”

- Eliza katolikoak eta ebanjelikoak oinarri berdinak defendatzen dituzte
- Eliza ebanjelikoak ez du Aita Santurik, beraien gidariak Jesukristo eta Biblia dira

Gure herrialdean, historia dela eta, erlijio katolikoa jarraitzen ez duen pertsona arraroa suertatzen zaigu. Beste herrialde batzuetan, aldez, ebanjelikoa edo protestantean izatea ez da harritzekoa, latinamerikar herrialdean edo AEBtan, esate baterako. Ospe handiko pertsonaiek ere erlijio ebanjelikoaren jarraitzaileak izan ziren, besteak beste, Gurutze Goriarren fundatzailea Henri Dunant, grabitatearen lege uhertsaleko asmatzailea den Isaac Newton edo giza eskubideen ekintzailea zen Martin Luther King. Eliza ebanjelikoak kristau fedeaaren adar bat osatzen du, katolikoak eta eliza ortodoxoak bezala. Mundu guztian eliza ebanjelikoak fede oinarri bati heldu diu, ebanjelioari. Beraien artean talde edo deitura desberdintakoak aurkitzen ditugu, bakoitzak beraien interpretazioa edo oinartzak dfituztelarik.



Oinarriaren hasi baino lehen, kantuen hasten dituzte mezak. Erdigunean, Maite arzauna kitarra jotzen

IXASO MORENO bidez lortuak salbazioan sinesien du”.

Eliza ebanjelikoak krisa-tasanaren printzipioak defendatzen ditu, alegia, fedearen parteketa, bizitza bidez, baketsuak lagun-tzea, beharritu jaten ematea eta eliza, familia bilaketa.

Eliza ebanjelikoaren sust-traiak Luteroren erreforma protestantean oinarritzen dira. Kristausunen baltan zut-ten printzipioak argi-erri-errianen Luterok eta eman zituen Luterok.

Eliza ebanjelikoak egoitza ireki zuten Lasarte-Oñan duela 9 hilabete. Oraindik komunite- te txikia osatzen badute, eta nahiz dute espazio berriak aukeratu, denek bere bizitza ziklo-ko gurutzearen hitzetan "hainko- ba guztik ezabatzeko, Maite Larrañaga eta Jose Luis Arrese dira herriko arzaunak. Larrañ- aga bikoizte bizi bizi izan zen eta momentu iritsi zenean, gurtu eta gurutzetan ideak handituak ezaugarritzen dituen ordinarri zibuen”.

Katoliko vs. Ebanjeliko Eskerturik egon beharko ginatela guztia eman zuten horri eta horregatik "gure zibil- tzaeren oinarri Jarraioa ezagu- zaren eta bere maitasuna jasotzera bideratzen dugu" gaineratzen du.

Nola iritsi paradisu? Eliza ebanjelikotako jarraitza- leek "Jesukristo onartzen dugu eta Espiritu Santua gudan bizi da; gure esku dago, gure bizi- tzarekin, sugar hori berririk inautek" aipatzen du Larraña- ga. Ebanjelioa hitzak, berrit- ra ona eta egindako lanen

zentzu Larrañagak. "Fidielitateko alizon adit- bidez gizonetakoak soilik dira arzaun, "gu geunduen elizan ere ez ziren emakumeak onartzen, baina gurea zabal- du baino lehen arzaun gabe adostu genuen, emakumea ere arzaun izango zela, eta hor nago ni" gaineratzen digu.

Eliza Katolikoa eta ebanje- listen sustarriak berberak badira ere, ezberdintasun nabariak aurkitzen ditugu. Apaiz katoli- koak ezkomdu ezin diren biarriaren, arzaun ebanjelistik ezkomdu eta familia sor deza- keke. "Eliza katolikoren jarre- rik antzinakoa ikusipuntu bati jarraitzen dio, ez dute ebolu- ziorako bidea jarraitu" azal- tzen du Larrañagak.

Aldeaketa garatan koronite ezberdinak soru ziren kristau- tasunean; protestantismoa, katolizismoa, ortodoxoak... "Katolizismoan adibidez, koronite berri honen abuzuz mojak eta eliz gizonak gizar- teki aldentu behar ziren eta orduan soru ziren monasterio- ak" kontatzen digu Larrañag. Zentzuen pentsatzen hasi zirela dio. Lasarte-Oñako arzaunak "nik honetan sinesten badut ere, inguruen ditugunak begiratu behar ditugula use- liazuri du, ez zerura bakarrik".

Ebanjelistek, negarrez dau- denei edo oraindik jarraioa ezaugarritzen ez dutenengana hurbildu behar dela predika- tzen du "lurran utzi gaitu bere ordetxoak izateko, eta bere gizaritaki aldentzeko" er- jarritzen du Larrañagak. Eliza katolikotik harez geroztik zeharrik beharitzen den predikatzaileak "eta hori akte handia da". Ebanje- listen abuzuz ezkomdu opari- bat da "ezkon maitasuna eta ezlazio sexualak ugalketa berriak" erlijio ezberdinak eta hainkoaren dute ebanjelistek. Beraien esanetan, katoliki- ko oitortu egiten dute eta eurak orazioa "Askatasun osoz nahiz ditugunak esaten dizkiogu Jainkoari, barmaldetan dugu- na, ezinezkoa sortarazten digun" dio Larrañagak. Katolikoak gurtzak errepikatzen fedearen aurretik iri den per- sonak auzkarren: "Honeia, elka- rrekin, Biblia irakurtu eta gure

dezagula 06 liburuz osaturiko Eskerturik egon beharko ginatela guztia eman zuten horri eta horregatik "gure zibil- tzaeren oinarri Jarraioa ezagu- zaren eta bere maitasuna jasotzera bideratzen dugu" gaineratzen du.

Zerurako sarrera ez da ekitzen bidez irabazten den trofeo, Jainkoak ematen digun oparia baizik

Katolikoak bezala kristautasun printzipioak dira gureak, baina ebanjelioa oinarri dugu

hilda, aurkitu diren unsean gorpuzen arazoak eragin ditu" salatzeko herriko arzaunak.

Eta antisorgailuekin zer? Antisorgailuan inguruko adie- razpenik ez da Biblian agra- tzen, "beste batean umekak bedenkaperen bat direla, apa- tzak erabaki behar du zenbat umek erabaki nahi dituen eta horren harira, "erlazio sexualak edukizterakoan metodo hauen erabilera egokia dela uste du" gaineratzen du Larrañag.

Honek, ez du esan nahi antisorgailuen aldekoak dire- nik ebanjelistak "gizartean dagoen bizitzeko modu hori ez zaigu gustatzen, ezagutu gabe oheratzen diren bikote horiek, Jainkoaren hitzaren kontra jarduten dute", Jainko- onen arabera, gure bikotearekin elkartzen garenan ondatu- estimatu bat erretortzen dugu "eta horregatik ezkontza bango- poko ezlazio sexual guztiak kondanazten dute".

Maietik bikoterako gorde- tzea gomendatzen du, baina Jainkoan ezaugarritzen ez dute- nentzai, eta Jainkoaren begie- tueren zaintzeko aholkuak litzuzten die.

Bizirautea Ez dute gobernuak, ezta inon- go erakundeirik dirurik jasot- tzen, bere bizi iraupena komuniteatek emandako ekar- penek esker lortzen dute. Lasarte-Oñako eliza eban- jelista mantentzeko jendeak bere irabazten hamartara eta nahiz dituzten ofendak eskain- tzen dituzte "ezagutzen ez- gaituztenen kuota bat gordinitzen dugula esaten dute, baina ez dauka horren- kezirik" dio Larrañag.

Gizarteak beti sostengatu ditu erlijio ezberdinak eta hainkoaren dute "ura, lokala, itza beharra dute" ura, lokala, Katolizismoan ezarritako "gogorak" izan dira, "eliz dugun dirua horretara bidera- gizon eta mojak erre egin dira. Gizakiaren boretzko desioak erregimintu izanak, "sektu" susmo bere gain ezaugarritzen dituzte. "Bere maitasuna gure biziaren bidez irabazten den trofeo, Jainkoak ematen digun oparia baizik"



Bilera pasionalak egiten dituzte. Pasa den igandeko bileraren jende berri (argi hurbildu, zen, pikadaria) osatuta eman dira

Jainkoak eta Bibliak aipatzen dute, gure bizitza- zehar nahigabeak izango ditugula

Antisor- gailuek metodo egokiak ditugu erlazio sexualak edukitzean ditugunean

9 hilabetez lanean Jainkoaren deia sentitu "eta Lasarte-Oñan zerbitu ireki nahi zuela ulertu genuen, guk behar dugu" ura, lokala, Katolizismoan ezarritako "gogorak" izan dira, "eliz dugun dirua horretara bidera- gizon eta mojak erre egin dira. Gizakiaren boretzko desioak erregimintu izanak, "sektu" susmo bere gain ezaugarritzen dituzte. "Bere maitasuna gure biziaren bidez irabazten den trofeo, Jainkoak ematen digun oparia baizik"

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto: depilazioa arag. pultsatuarekin

- Era gutxietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Beste hainbat zerbitzu
- Gorputzeko tratamenduak

Ustin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oñia

Eneko Castroren omenezko Kros bikaina

■ 240 haurrek parte hartu zuten, euskara eta kirola bultzatzeko proban ■ Eneko Castroren sendiak oroigarri bat eman zion Landaberri ikastolari esker onez ■ Giro bikaina izan zen

Landaberri ikastolak antolatzen duen XIII. Euskal Krosa giro bikainean, partaidetza zabalarekin eta ezusterik gabe burutu zen atzo Atsobakarren. Hamairugarren krosa zen atzokoa eta hamargarrena Eneko Castro atleta zenaren omenez. Zerbaki borobil hau baliatuz, Castroren sendiak Landaberri ikastolari eskerrak eman nahi izan zion hamar urte hauetan eskaini dioten berotasunarengatik eta oroigarri bat eman zioten urte hauetan ikastolak izan duen portaera eskertzeko.

JON ALTUNA

Gutzira 240 haur inguru izan ziren atzo, igandea, goizean urtero Eneko Castro atletaren omenez, burutzen den Euskal Krosean. Kirol arropak jantzi eta bakoitzak bere mailakoekin lasterka egin zuten Atsobakarreko parke inguruan, Landaberri ikastolako Guraso Elkarteak antolatzaileek prestatutako ibilbidean.

Haur guztiak, beren proba amaitu eta gero domina bana jaso zuten. Lehen ur botila bana ere ematen zitzairen, baina iaz hasi ziren ura berberabiltzen diren edalontzietan ematen, plastiko eta zabor gutxiago sortzeko helburuarekin. Ikastolan Patruila berdea martxan da eta krosa ere leku egokia da zaborren kudeaketa ona baneratzeko.

Euskara, kirola eta ekologia

Horrela euskara eta kirolarekin batera ekologia ere bultzatzen du euskal krosak. Hondakin gutxiago sortzeko, ez zitzairen parte hartzaileei ur botila txiki-rik banatu eta edukiontzia jarri ziren sortutako zaborra jasotzeko, batez ere banatu ziren yogur ontziak biltzeko. Zorrotzak izan ziren atzo horretan.

Sekula baino guraso gehiagok parte hartu zuten krosean. Goiz guztia pasa zuten euren haurrei txalo egiten eta batzuek nahikoa lan zuten gainera bideo eta argazki kamaretan euren haurren irudiak jasotzen.

Haurren lasterketa guztiak amaitu eta gero, haur eta gurasoek azken itzuli ikusgarria eta herrikoa eman zuten guztiak batera.

Krosarekin amaitzeko, parte hartzaile guztien artean kirolarekin eta euskararekin lotutako opariak banatu ziren zozketa bidez. Haurren artean lehiakortasuna baino, parte hartzea eta gozatzea bultzatu nahi dituzte antolatzaileek. Horrengatik sariak eman beharreen zozketa egin eta opariak banatzen dira guztien artean.

Ikastolari omenaldia

Sari-opari banaketan urtero bezala Eneko Castro zenaren gurasoek parte hartu zuten Landaberri ikastolako antolatzaileekin batera. Aurten hamargarren aldiz Lasarteko atletaren izena izan du krosak eta bere sendiak ikastolako Guraso Elkarteak hamar urte hauetan izan duen begirunea eta eskaini dioten berotasuna eskertu nahi izan du ikastolari oroigarri bat emanaz. Tomas Maizek jaso zuen oparia ikastolaren izenean.

Bataz beste 700 metro inguruko ibilbidea osatu zuten haurrek, maila bakoitzean dagokion erritmoan. Urtero bezala ikastolako irakasleak aritu ziren talde bakoitzak mailaren araberrako abiadura eraman zezan, probaren helburua denek lasterketa amaitzea baita, korrika egiten gozatzea, ito gabe, euren artean lehiatzea baino. •



Tomas Maizek jaso zuen ikastolaren izenean Eneko Castroren sendiak Landaberri ikastolari eman zion oroigarria.



Euskara eta kirola uztartuz Atsobakar inguruan lasterka egin zuten hainbat haurrek.



Bukaeran, gurasoek eta haurrek azken itzuli ikusgarria egin zuten denek elkarrekin.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

ALVARO LEDESMAREN Espektroak izeneko margoen erakusketa. Errenteriako artista honek 2007an egindako lanak ditu ikusgai. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.

Asteazkena, 17

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZAK Ipuin bat irakurriko dugu saioa eskainiko die liburutegira hurbiltzen diren haurrei. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburuetan, 18:00etan, EUSKARAZ.

Ostirala, 19

Kontzertua

AUPA QUARTET, Bartzelonatik etorritako soka laukoteak emanaldia. Jalgi kafe-antzekian, 23:00etan.

Osteguna, 25

Mahaingurua

KUDEATUZ egitasmoaren inguruko mahaingurua. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean.

Zinea

FROZEN RIVER filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4, 15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean, GAZTELANIAZ.



Seme-alabekin izandako arazoei nola aurre egin Pilar Seminarioren eskutik

NOLA AURRE HARTU GURE SEME-ALABEKIN ETORKIZUNEAN IZAN DITZAKEGUN ARAZOEI hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta.

ASTEAZKENEAN, HILAREN 17AN
KULTURETXEAN 18:00ETAN

Ostirala, 26

Berto-saioa

LASARTE-ORIA BIZIRIK! taldeak bertso-saioa antolatu du. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan.

Jam sesioa

THE BILLIE JEANS taldea izango da gonbidatu berezia jam sesioan. Talde donostiar

honek, funk eta soul jorratzen ditu. Jalgi kafe-antzekian, 23:00etatik aurrera.

Igandea, 28

Zinea

ROMPEDIENTES haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ.

Oharrak

60ko kinto afaria Dana Ona jatetxean

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kintoen afaria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5ean izango da.

Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 21010048200012568275 kontuan sartu behar da. Informazio gehiagorako interesatuek 943 370980 telefonora deitu (Maria Luisa).

Aste Santuko Txokoak

Takuneko Aisia Sailak jakinarazi nahi du irekita duela Aste Santuko Txokotako matriku la egiteko epea. Txokotan 2001 eta 2007 urte bitartean jaiotakoek hartu dezakete parte eta izena emateko azken eguna martxoaren 24a da.

Informazioa gehiago izango duzu Takuneko bulegoan (Geltoki kalea 4, 943 371448) edo www.ttakun.com web atarian.

Marrakzi eta pintura eskola

Lasarte-Oria Bizilagun Elkar-teak jakinarazi nahi du, martxoaren 19 eta 20an Kultur Etxea itxita egongo denez, ez dela marrakzi eta pintura klaserik izango.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, argazki kamara, urrezko eskumuturrak, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrezko belarrita-koak, betaurreko graduatuak eta betaurreko graduatuak bere zorroan.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesatutik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

Jesus Mari Zaballos, allegro ma non troppo

Aire egokitua udako egun berotsuetan bezala iritsi zaigu alkate berria Lasarte-Oriara: aire garbia da guztiz kutsatutako giroan, dudarik ez, baina espero dezagun momentuko freskotasan ez dezala ekarri gerorako griperik. Izan ere, Jesus Mari Zaballos aurreko alkatearen "kudeaketatik" garbi dagoela badirudi ere, erakutsi beharko du herriarekin hartu duen konpromisoa noraino iristen den orain hasi berri den ikerketa batzordean, adibidez.

Eta ez da ez ongi hasi Jesus Mari. Alkate ohiairen ondoan luzaroan egon izanak kaltetu duela dirudi, izan ere, alkatetzarako aurkeztuko zela ezagutu genuenetik "perla" ugari bota baititu. Batetik, bere burua alkate aldarrikatu zuten DV-n aldeaz aurretik, bere hautaketa Urchueguiak berak auzituko balu bezala. Ez jauna, alkatea Udaleko Korporazioak erabakitzen du eta ez Urchueguiak PSEko

egoitzan egindako bilera batean. Bestetik, behin alkate izendatuta, ugazaba morroiari arituko balitzaio bezala, berarekin paktuetara iristeko "oposizioak bere konfiantza irabazi" beharko zuela esan zuen Txintxarri. Alajaina! Alkate berria, jarrera zaharrak. Ez Zaballos, ez, gauzak ez dira horrela; ez dakit zer irakatsi dizun Urchuegui alkate ohiaik, baina ZU zaude gobernuan, eta proiektuak aurrera atera ahal izateko ZUK irabazi beharko duzu Korporazioaren konfiantza, eta ez alderantziz.

Ikus dezagun, beraz, nola-koak diren alkate berriaren proposamenak, jarrerak eta jarduerak eta ez dezagun aldeaz aurretik epai. Alkate ohiaik, euskaldunok gutxietsiz, erdara hutsez agur esan zigun gutun baten bidez; guk, garai berriaren islada, euskara hutsez ongi etorria eman nahi dizugu zuri, Jesus Mari, Lasarte-Oria egiteko modu berri bati hasiera emango diozun itxaropenaz. Zorte on izan.

Estitxu Alkorta (Lasarte-Oria-ko EAJ/PNVko bozeramailea)

Guk ere 6 urteko moratoriarekin bat egiten dugu

¡BEJONDIZUELA USURBILDARRO, VIVA ZUEK! Bi urteotan hutsetik abiatuta martxan jarri duzue hondakinak kudeatzeko modu berria. Europan diren ereduak ikusi, leku asko bisitatu, asko eztabaidatu eta Atez Ateko sistema abiatu zenuten. Martxan jarri eta denbora gutxian oso emaitza onak lortzea posible dela erakutsi duzue. Usurbildarro bide berria ireki diguzue Gipuzkoako eta Euskal Herriko jendeoi. Sistema berria antolatu behar izan duzue goragoko instituzioen laguntza ezarekin. Aldiz, esku zabal jokatu duzue bai udaleko alderdien artean akordioetara iristeko eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Hondakinaren Kontsortziari proposamenak eginez.

Azkena, Xabier Mikel Errekondo Usurbilgo alkateak egindako eskaintza: Zubietako Errauste Plantaren proiektuarentzako 6 urteko moratoria. Guk bat egiten dugu moratoria proposamen horrekin. Eta

ausarta litzateke Aldundiaren aldetik eskaintza hori onartzea, Gipuzkoa jasangarriago baterantz egiteko.

"Atez atekoaren emaitzak ikusita, ze zentzu du orain birziklagarriak diren materialak erraustea, hots, errauste-planta eraikitzen hasteak? Azpiegitura garestia da oso (400 milioi euro) herritar guztion osasunari kalte handia egiten dio, gertuko zein urrutiko. Udal agentari nagusiok jarri atez ateko bilketa Gipuzkoako gainontzeko herrietan, aztertu emaitzak eta ondoren erabaki errauste-planta beharrezkoa den ala ez. Gauzak alderantziz eta presaka egiteak ez du zentzurik. Burugorakeria da. Gipuzkoak eta LASARTE-ORIAK aukera hori merezi dute eta atez atekoak ere bai."

Espainiako egunkari salduenak (El Paisek) berri eman duenez, Bizkaiko Zabalgarbi errauste-plantak 2009an %90 jaitsiera izan du bere diru-sarreretan. Elektrizitate salmentak ere %12 egin du behera. Gauzak horrela, Zabalgarbi Espainiako Industria Ministeriotik jasota-

ko diru-laguntzei esker bukatu du 2009a txukun xamar.

2008an 337.000 tona hondakin erre zituzten eta 2009an, berriz, 229.000. 2010erako 237.000 tona erre nahi dituzte planta errentagarria izan dadin. HORRA HOR TRANPA! Nola da posible birziklaia, hondakinak gutxitzea... bultzatu eta errauste-planta errentagarri izateko erretzeko zabor gehiago eskatzen ibiltzea?

Lasarte-Oriako biztanleriaren gehiengoa erraustegiaren aurka gaude, BAINA EZ DA NAHIKO. Gure udal agentariak (gubenu batzordeak) 2008ko Martxoan erabakitakoa atzera bota du, har ditzagun Usurbil, Hernani, Oiarzun (Maiatzean Atez Atekoa martxan jarriko da Hernanin eta Oiarzunen) eta urrenez-urren etorriko diren herriak eredu, eta Lasarte-Oria ere tropel nagusian sar dezagun, ezker abertzaleak horretan darrai lanean.

Txanpi Baztarrika, Itziar Iartza, Joxe Goikoetxea Ezker Abertzaleko zinegotziak



Iñigo García lasarteoriatarrek min hartu zuen masail hezurrean eta Donostiako eritexera eraman zuten.



200 ikusle inguru izan ziren Michelingo frontoian King Boxing eta K1 borroka jaialdian.

Kick Boxing bizi-bizia Michelinen

Herriko sei borrokalarietatik bik min hartu eta garaipen bakarra Erik Valverdek lortu zuen

Jon ALTUNA

Hiru ordu iraun zuen larunbat arratsaldean Michelingo frontoian burutu zen Kick Boxing jaialdiak, batetik hamaika borrokaldi izan zirelako, iragarritakoak baino lau gehiago, eta bestalde, borrokalarietako batek, Iñigo García lasarteoriatarrek masailan jaso zuen ostikoaren ondorioz eritexera eraman zutenaz, anbulantzia itzuli bitartean itxaron egin behar izan zelako. Iban Valverde herritarrak ere min hartu zuen bekainean. Gorabeheratsua izan zen beraz jaialdia. Parte hartu zuen sei herritarren artean garaipen bakarra Erik Valverdek eskuratu zuen.

Ikusgarriak izan ziren larunbat arratsaldeko 5etatik aurrera Michelingo frontoi estalian burutu ziren borrokaldiak Kick Boxing-a maite dutenentzat. Herriko sei borrokalarik parte hartu zuen eta suerterik txarrena Iñigo García izan zuen eritexean bukatu baitzuen aurpegian jasotako kolpe baten ondorioz. DYAKo anbulantzia batean eraman zuten Donostiara, masailezurrera mazzpildu eta barrura sartu zitzaizolako. Hor atsedean bat izan zuten borrokaldiek anbulantzia itzuli arte itxaron behar izan baitzen.

Iban Valverde herritarrak ere ezin izan zuen borroka amaitu bekainean jasotako kolpe baten ondorioz. Bere borroka, bosgarrena, berdinketan amaitu zen, emaitzarik gabe, hasiera hasieran hartu baitzuen min. Antolatzaileek



Borroka ikusgarriak izan ziren larunbat arratsaldean. Irudian, Ander Azurmendi eta Roberto Valenciaren artekoa.



Zaballos eta Escoriaza, Borja Mendioroz eta Manu Carrasco antolatzaileekin.

lurrean amaitu zuen eta KOz galdu zuen Josu Urrutiaren aurka.

Erik Valverde Txino herritarrak irabazi egin zion hurrengoan Oscar Currori. Seigarren borrokan Imanol Aizpurua lasarteoriatarrek galdu egin zuen Alex Anasagastiren aurka. Sergio Lester eta Adnan-en artekoan Ivan Hernandez epaileak bigarrena ezinean ikusi eta KO teknika adierazi zuen.

Iturrarte lehen aldiz

Zortzigarren borrokan Aitor Iturrarte herritarrak, bere estreinaldian, berdinketarekin konformatu behar izan zuen Karlos Gorosperen aurka. Karatean ari zen eta aurrean hasi da Kick Boxing-ean. Bederatzigarrena, Iruñeako Marco Ruizek irabazi zuen KOz Iñigo García aipatutako ostikoarekin lurrera botata.

Ordu erdiz eten egin zen jaialdia anbulantzia itzuli bitartean eta ondoren ikusi ziren borrokaldi ikusgarrienak. Ander Azurmendi eta Roberto Valenciaren artekoa, borroka gogorren ondoren hutsen geratu zen, berdindurik amaitu zuten.

harriturik ziren normalean ez baita hainbeste gorabehera izaten. "Beste edozein kirol-tan bezala, bi kirolarik min hartu dute, besterik ez. Dena den, hau ez da Kick Boxingean ohikoa". Jaialdia ontzat ematu zuten eta egia esan kiroltasunez aritu ziren borrokalariek guztiak eta borrokak besarkada batez amaitu zituzten.

200 ikusle inguru bildu ziren frontoian. Lehen borrokan Martxel Otamendik Iñigo Ruiz-i irabazi zion. Bigarrenean Spartak armeniarrek Unai Saroberi. Hirugarrenean Lasarteko Eneko Hernandezek

hurrengo erronka Euskal Herriko txapelketa izango da, apirilaren 10ean, Hernanin. •